

## **EUSKARAREN ERABILERA ETA NORMALIZAZIOA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN**

### **SARRERA**

Euskararik gabe ez da Euskal Herririk, ezta euskararik Euskal Herririk gabe. Hizkuntza eta nazioaren arteko lotura argia izanik, Euskal Herri euskalduna lortu bidean indarrak jarriak dira azkeneko hamarkadetan.

Bide horretan bi zeregin nagusi daude, normalizazio eta hizkuntzaren erabilera sustatzea eta erantzutea batetik, eta esparru guztietan gutxienez erdararen eta euskararen arteko oreka mantentzea bestetik.

Gure herrian administrazio ugari dago eta baita bertatik eratortzen den hamaika zerbitzu ere: osasun, justizia, udal, foru, ogasun, polizia, epaileak, fiskalak, erizainak, lan bulegoak eta abar. Baina oro har esan genezake hauekin euskaraz egitea oso zaila dela, kasu askotan eta askotan ezinezkoa. Epaileen aurrean gure burua erdaraz defendatu behar dugu edo kasurik onenean itzultzaileaz, arrotzak bagina bezala. Bestalde, osasun arazoak direla medio, erdaraz sendatzera behartzen gaituzte. Eta udaletan ere, euskaraz bizitzea oraindik egi bihurtu ez den errealitatea dugu.

Euskara gutxi erabiltzen da Justizia Administrazioan. Hizkuntza-normalizazioan indarrean dagoen legeria betetzeko neurriak hartu arren, onartzen da euskarak ez duela egoera normalizatua Justizia Administrazioan. Gainera, berrets daiteke gaur egun ez dagoela bermatuta herritarrak berak aukeratutako hizkuntzan zerbitzua jasotzeko duen eskubidea

Euskara mundu edo esparru juridikoan garapen prozesu batean dago. Zenbait esparrutan, normalean formaltasuna nagusi denean erdararen gailentasuna nabaria da eta botere politikoaren edota publikoaren zeregina erabakigarria dela ezin daiteke zalantzan jarri. Horren ondorio dugu, lege-mota desberdinetan hizkuntzei egiten zaien erreferentzia, aurrerago aztertu eta ikusiko dituguna: Espaniako konstituzioa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua, BJLO, 117/2001 dekretua besteak beste.

### **HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAREN AURREKARIAK**

Euskara Juridikoaren lehenengo moduluan ikusi genuen euskararen bilakaera, “Euskara mundu juridikoan historia laburra” Andres Urrutiaren eskutik. Sasoi ezberdinetan euskararen presentzia eta garrantzia esparru juridikoan azaltzen ziztaigun. Euskarak historian zehar inguruko hizkuntzen aurrean bizitzeko ahalegina ez da txantxetakoia izan.

Hizkera juridikoa, hizkuntza baten barruan zuzenbidearen munduan egiten den erabilera da. Mundu juridikoan historia luzea egin duten hizkuntza batzuetan aurkitzen ditugu halako berezitasun morfologikoak, baina batez ere, lexiko bereziaren erabilera bilatu behar dugu horrelako hizkeren berezitasuna.

Euskara ez da inoiz Zuzenbidearen hizkuntza izan. Ez da ez epaiketen ez legearen ezta hizkuntza formalaren hizkuntza izan.

Aro Garaikidea aro oso zabala daukagu eta 1789-1836 urte bitartean, Espainiak elebakartze bakarrari eusten zion. 1890.urtetik aurrera, ideia nazionalista berriekin batera, diputazioek, udalek eta beste ente publiko batzuek, testuak erdaraz eta euskaraz argitaratzen hasten dira. 1931.urtean hasten dira euskara juridikoko agerpenak testuen ekoizpenean. Erakunde publikoekin batera, sindikatuak eta zenbait alderdi hasten dira beraien estatutuak euskaratzen. Garai honetan ere, beste genero baten jaiotza ematen da: zuzenbideari buruzko gogoeta.

Azken mendeko gertakarien artean, 1939-1975 bitartean Euskal lurraldeek bizitako diktadura izan da. Euskal Herriak hainbat urteetan zehar euskara guztiz txikitua izan zuen, non euskara guztiz baztertua eta zapaldua izan zen. Klean hitz egitea debekatua izaterakoan, zer esanik ez administrazioan edo instituzioetan. Etxeko eta lagunarteko hizkuntza zen euskara. Euskara lau hamarraldiko garai ilunetik atera berria da. Maila ideologikoan berrindartua, inoiz ez baitu maila ideologikoan sasoi hortako ospea, baina maila soziolinguistikoan guztiz ahulduta atera zen. 60ko hamarkadan, euskaldunen artean analfabetismoa ia bakarra zen; euskaraz irakurtzen zekitenak (ikastolak sortzen hasi zirenean) oso gazteak ziren. Jenderik euskaldunena administrazio-gune batean sartzen zenean, zekien erdararik dotoreena egiten saiatzen zen.

Espainiar Trantsizio garaian, euskararen zapalkuntzaren sendaerari ekin zitzaion, hizkuntza baztertzeko hartu ziren bidegabeko zenbait neurri indargabetuz. Euskal instituzioek bere herriaren izenean zenbait helburu lortzeari ekin zion

Eusko Legebiltzarreko 10/1982 Legea, Carlos Garaikoetxea Euskal Autonomi Erkidegoko lehendakaria zenean, Euskara Normalizatzeko Oinarrizkoa, onartu zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan etengabeko ahalegina egin da euskararen erabilera sustatzeko.

2001. urtean ekainaren 26ko 117/2001 Dekretua publikatu zen, Justizia Administrazioiko hizkuntzaren normalizazioari buruzkoa.

## **EUSKARAREN NORMALIZAZIOA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN.**

### **Hizkuntzaren printzipioen iturburuak eta ekimenak**

Badira urte batzuk Euskararen Arauzkotze legea onartu zenetik eta lan handia dago Justizia Administrazioan euskararen normalizazioa eman dadin. Beste arloetako administrazioetan ez bezala, justizia administrazioan euskararen normalkuntza motelagoa eta berezitasun handiaz osaturik baitago. Euskara ez da zuzenbidearen eta justiziaren (epaileak, abokatuak) hizkuntza izan.

Justizia Administrazioan ematen diren inguruabar juridikoak, nagusiki honako lege hauetan jasoa daude:

Espainiako Konstituzioaren 3. art.aren arabera:

#### ***3. artikulua***

*“1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.*

*2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatutoei dagozkien eran.*

*3. Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.”*

Beraz, artikulua honetatik interpreta dezakegu gaztelania jakin beharra dagoela, nahiz eta edozein hizkuntza ofizialari erabateko balio eta eragin juridikoz ezartzen duen, baina beti ere beste maila batean kokatzen ditu. Beste Autonomia erkidegoetan, euskararen kasuan EAE-n, honen ezagupena eta horren betebeharrei buruz, beraien botere publikoak, Eusko Jaurlaritzaren besteak beste arduratuko diren. Esan beharra dago artikulua honek anbigutasun zabala duela eta arazoak sor daitezkeela eskumenari erreparatuz, 117/2001 dekretuarekin gertatu zen bezala.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan bere 6.artikulan zera jasotzen du:

#### **6. artikulua**

*“1.- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.*

*2.- Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, berorien ofizialtasuna erregulatuz, eta berorien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.*

*3.- Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.*

*4.- Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.*

5.- Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroriekin izan ditzaketan harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahaliko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuarekin itunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultzatzea dadin.”

Autonomia estatutuak gaztelania eta euskarari maila eta balio berbera ematen die, inor gutxietsi gabe. Euskara, EAE-ko berezko hizkuntza da eta gaztelaniaren parera, guztiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

Espainiako Konstituzioak alde batetik, eta Autonomia Estatutuak bestetik, euskararen erabilera eta normalizatzea, herri agintean esku jartzen du. Interpretazio zabalak eskaintzen dituzte bi legeek beraz, epaile, magistratu edo idazkari judizialen euskalduntze-prozesua posible izango litzateke bi lege nagusien barruan.

10/1982 Legea “Euskararen erabilera eta normalizatzea oinarritzakoa” eman zenetik, saiakerak ugariak izan dira. Honeen arabera finkatu zen, herritarrek Justizia Administrazioarekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala aukeratu ahal dutela, eta ezingo zaiela itzulpenik eskatu. Horrez gain, euskaraz aurkeztutako agiriak eta idazkiak baliodunak izango direla. Lege hau, bai herritar guztiek eta botere publikoek bete beharrekoa litzateke.

Hala ere, Administrazio Publikoko gainerako eremuetan baino beranduago iritsi da Justizia Administrazioa euskalduntze-prozesua eta bertan euskara sustatzekoa; betearazte erritmoa ere beste Administrazioetan baino motelagoa da, konplexutasun handiko eremu administratiboa baita. Konplexutasun hori, beste hainbat inguruabarren artean, eskumenak dituzten hainbat eremu egoteagatik, eta langileekin eta legegintzarekin lotura duten gaiak egoteagatik sortzen da.

Azken urteotan Justizia Administrazioa helburu gisa planteatu da euskararen sustapena, eta, zentzu horretan, proiektu eta jarduerak garrantzitsu ugari egin dira, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen lankidetzarekin eta beste kolektibo batzuetako pertsonen laguntzarekin.

BLJOren 231. art.aren arabera, jarduketan judizialek itzulpena erabiliko da alderdietakoren batek, hizkuntza ez dakiela-eta, defentsa-gabezia alegatzen badu.

*“2. Los jueces, magistrados, fiscales, secretarios y demás funcionarios de juzgados y tribunales podrán usar también la lengua oficial propia de la Comunidades Autónomas, si ninguna de las partes se opusiere, alegando desconocimiento de ella, que pudiere producir indefensión.*

*3. Las partes, sus representantes y quienes les dirijan, así como los testigos y peritos, podrán utilizar la lengua que sea también oficial en la Comunidades Autónomas en cuyo*

*territorio tengan lugar las actuaciones judiciales, tanto en manifestaciones orales como escritas.”*

Bestalde, 341. artikuluan arabera, berezko hizkuntza ofiziala jakitea merezimendu gisara baloratuko da berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia erkidegoetako organo jurisdikzionaletan karrera judizialeko kideen lanpostuak betetzeko. Pauso txikiak ematen zituzten euskararen eta beste autonomietako hizkuntza minorizatuaren alde.

Espainiako Gobernuak Europako eremu urriko edo eskualdeko hizkuntzen Gutuna berretsi zuen eta honek, bere 9.artikuluan dio, organo jurisdikzionaletan herritarrek beren eremu urriko edo eskualdeko hizkuntza erabili ahal izango dutela eta, jarduketa horietarako beharrezkoak izatekotan, interesdunentzat doakoak izango liratezkeen interpretarien edota itzultzaileen lanak.

**117/2001 Dekretua**, EAEko Justizia Administrazioko hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituena, 2001eko udazkenean publikatu zen. Aipatu behar da Estatuko Gobernuak Dekretu horren aurkako eskumen gatazka positiboa aurkeztu zuela, dekretua etetea lortuz, nahiz eta gero, 2002ko ekainaren 5eko autoak etenaldia berriro ere altxatu, eta hango testuaren alde ebatzi.

Aipatutako dekretu hau argitaratu orduko, Botere Judizialeko Lege Organikoa aldatua izan zen abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoaren bidez aldatu da.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak euskara normalkuntzako neurriak finkatzen dituen 117/2001 Dekretua 2001eko ekainean onartu eta argitaratu zuen, baina, Espainiako Gobernuak helegitea aurkeztu zuen dekretu horren kontra, eta Auzitegi Konstituzionalak indarrrik gabe utzi zuen euskalduntzeko plangintza behin-behinekoz. 2002ko ekainean, ordea, Auzitegi Konstituzionalak berrikusi egin zuen urtarrilean hartutako erabakia eta, ondorioz, indargabetzea kendu zion Dekretuari, baina, behin betiko ebazpena eman gabe; izan ere, oraindik ez dago behin betiko ebazpenik. Indargabetzea kendu ondoren, dena den, berriztapen batzuk txertatu dira euskara ikastaroetarako programetan.

**1. artikulua.**– Dekretu honen **helburua** zera da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren hizkuntza normalkuntzarako neurriak arautzea hiru alorretan:

– Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen plantilletan eta lanpostuen zerrendetan hizkuntza-eskakizunak nola jarri arautzea.

– Plantilletan eta lanpostuen zerrendetan ezarritako hizkuntza-eskakizunak kontuan hartuta, euskarazko gaikuntza-ikastaroak nola antolatu arautzea.

– Epaitegietako bulegoetan eta fiskaltzetan euskararen erabilera sustatzeko egin beharreko programak arautzea.

Dekretu honen 6.artikuluaren ezartzen da **hizkuntza eskakizunak betetzeko** 10 urteko epealdia ezarriko dela. Epealdi bakoitza, 5 urtekoak izanik. Funtzionario bakoitzari, bere ezaugarriak kontutan hartuta plangintza bat ezarriko zaio hizkuntzaren erabileraren helburua lortu arte.

Dekretu honek ez die EAE-ko Justizia Administrazioako langile guztiei eragiten, transferitutakoei bakarrik (dekretuaren 3.artikuluak ezartzen duen moduan), ofizialei, laguntzaileei, auzitegi medikuei, agente judizialei). Beste kideei aldiz,(epaile, magistratu, fiskal eta idazkari judizialak) beste hitzarmen batzuek ezarriko dute. Ikastaroak bi taldetan banatuko dira aipatutakoen kide multzoaren arabera.

Aurrerago aipatu diren berrikuntzen artean esperientzia pilotuen bidez epaitegietan euskara gehiago erabiltzearen helburuarekin.

Esan beharra dago, Justizia Administrazioan erabiltzen diren hainbat dokumentu itzulpena Euskara Batzordea sortu zela eta berak egiten duela eginkizun hori.

Dekretu honen bitartez, aurrerago aipatutako eskubide eta betebeharren markoaren barruan betetzera eta bermatzera zuzendua dagoela; non helburu garbia herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Justizia Administrazioetik bideratzen den zerbitzutik dela.

2004ean Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalkuntza Plan Nagusia burutu zen, nondik norakoak begiztatuz elkarrizketak eginez eta hórrela, jarduera eta helburuak finkatuz.

Gaur egun, laugarren plangintzan sartuta gaude bete-betean (2008-2012). Administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko planak indartzea, euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik gero eta administrazio-atal gehiagotan ohiko lan-hizkuntza ere izan dadin neurriak hartuz lan ildoak edo helburuak duena.

## **AZKEN GOGOETA**

Justizia Administrazioan euskararen erabilera normala eta egunerokoa emateko bide luzea daukagu oraindik. Jende askok ez daki euskaraz edota ez du euskara maila nahikorik eta honek ere oztopatu egiten du, horrela erdarara jotzeko joera handituz. Beraz, erdarak ia arlo guztietan salbuespenak salbu, nagusitasuna dauka euskararen aurrean gaur egun. Aurrerapauso handiak ematen ari dira baina Katalunian ez bezala, hizkuntza eskakizun maila edota hikuntza jakitearen eskakizuna EAE-n ez da betebeharrat, beraz euskara nahiko normalizatzeko baldintzak ez dira ezarri.

Zenbait herrialdetan (nafarroa adibidez) euskarak ez du behar bezalako estatus ofizialik eta bertako herritar euskal hiztunei hizkuntza eskubidearen urraketa ematen da. Egindako lanean, aztertu ahal izan dut justizia administrazioak zailtasun asko dituela eta egiteke lana izugarria dela. Herritarrak gara “presioa” egin dezakegun bakarrak, zeren beharrik egon ezean herri agintek ez diote egoerari konponbiderik emango. Euskararen hedapena gure esku dago eta teoriarik idatzitako xedapen hoiak errealitatean eraman beharra daukagu.

Euskararen arautzea eta araudiari buruzko burujabetza gure esku egon beharko litzatekeela diote zenbait idazleek. Sarri dira administrazioako langileek euskaraz bakarrik hitz egin beharko luketeenaren euskaldunak baina Konstituzio Auzitegiak 82/1986 epaian argi esan zuen ‘ Euskal Autonomi Erkidegoan elebitasun simetrikotan eman behar zela jarduera publikoen aginte osoa.’ Simetrikotasun horraino helduz gero, aurrerapauso itzela eman dela ulertuko da, gero beste pauso handiagoak emanek. Lana egiten ari dela aitortu beharra dago eta herriaren hizkuntza normalizatzeko gosea, handia da.

Esan bezala, ez dago euskararik Euskal Heririk gabe baina ez dago Euskal Heririk euskararik gabe ere.

Ane Larrea

Euskera Juridikoa I  
“Euskararen normalkuntza Justizia Administrazioan”



Euskera Juridikoa I  
“*Euskararen normalkuntza Justizia Administrazioan*”